

PARTE-HARTZEA ETA ERAGIN AHALMEN SOZIO-ESPAZIALA LURRALDE-PLANIFIKAZIOAN: ESKALEN ARTEKO KONPARAKETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Tesiaren egilea: Joseba Koldobika Arbaiza Alvarez

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea

Saila: Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia Saila

Tesi-zuzendaria: Eugenio Ruiz Urrestarazu

Tesiaren laburpena:

Administrazio-eskala ezberdinetan onartu eta garatutako politika publikoek eragin zuzena izaten dute lurraldean, eta, ondorioz, bertoko biztanleriarengan. Beraz, lurralde-antolamenduak barnean hartzen dituen politika publikoak garatzeko prozeduretan, herritarren parte-hartzea funtsezkoa bihurtzen da.

Lurraldea ez da soilik ondasun eta zerbitzuen ekoizpena eta kontsumoa islatzen den azalera, sozialki eraikitako espazio bat ere bada. Lurraldea eraikitzean, gaitasun eraldatzaile ezberdina duten hainbat eragile saiatzen dira politiketan eta planetan beren banakako edo taldekako interesak islatzen, administrazio-tramitazioetan zehar negoziazio edo prozesu irekien bidez, eta, horretarako, ekintza-bide formalak edo ez-formalak erabiltzen dituzte.

Plangintza edo proiektuen tramitazioaren epealdian zehar, momentu puntualak bideratzen dira legez araututako prozedurak betetzera. Jendaurreko epealdiak zabaltzean, iradokizun edota alegazio bidezko parte-hartzea bideratzen da. Egituratutako eta legez araututako prozedura horietatik kanpo, badira administrazioen borondatez ezartzen diren prozedura irekiagoak eta, teoriarik, bestelako partaidetza ahalbidetzen dutenak.

Lurralde-antolamendurekin lotutako plangintzen izapideak itxiak eta tradizionalak izaten dira, berrikuntzetarako aukera gutxi zabaltzen dutenak. Era honetako parte-hartzeak asko mugatzen du eragile eta herritar askoren esku hartzeko nahia edo premia. Parte hartzeko, administrazioek eta legeek ezartzen dituzten mugek (denbora, baliabideak, egituratutako lehentasunezko agenteak, informazioa, mekanismoak...) esku-hartzea murrizten dute eta prozesuak izatetik urrun gelditzen dira.

Azterketaren helburu nagusia hau da: eragile eta eskala bakoitzak lurralde-plan baten garapenean eta tramitazioan izan dezakeen intzidentzia-gaitasuna aztertu eta ebaluatzea. Maila horretan, eragileen parte-hartzeko moduetan sakondu nahi da; prozesu horietan aritzeko gaitasun aldakorra, egitura-testuinguruarekin duen harremana, eta tramitazioaren eta plangintzen garapenean hasieratik behin betiko onarpena ematen zaien arte izaten diren lurralde-arloko ondorioak.

Eskala izango da azterketa-kasu desberdinen arteko konparaketa egiteko aukera ematen duen aldagai geografikoa, eta ikerketa honetan planteatutako

analisia posible egingo du. Ikerketa-proiektu honen barnean, eskala ezberdinetako esparruetan izan diren lurraldeari lotutako parte-hartze prozedurak aztertu eta konparatu dira: tokikoa, eremu funtzionalekoa (eskualdearen baliokidea) eta autonomikoa (Euskal Autonomia Erkidegoa). Aukeratutako lehendabiziko kasu praktikoa Tolosaldeko lau landa-herritan garatu den Tokiko Agenda 21 ezartzeko prozesua izan da. Bigarren kasu enpirikoa Arrasate-Bergarako Lurraldearen Zatik Planaren izapidea izan da, EAEko lurralde-antolamenduak ezartzen duen bitarteko eskalan egokitzen dena. Eskalen arteko konparaketa ahalbidetuko duen hirugarren kasua energia eolikoa garatzeko Lurraldearen Arloko Plana litzateke. Azken honekin lotuta, plangintza onartu aurretik ezarritako Elgeako zentral eolikoaren proiektua eta plangintza onartu ondoren martxan jarritako Badaiakoaren bideratze-prozedurak ere aztertu dira. Horrela, lan honek aukera eman du gaur arte Geografiatik ia landu gabe zeuden alorrak lantzeko, herritarren parte hartzeko mekanismo eta dinamiken inguruan.

LAN MUNDUKO EUSKARA PLANETAKO LANGILE

EUSKALDUNEN JARRERA, PORTAERA ETA MOTIBAZIOAK:

PENTSAMENDUA GARATZETIK HELBURUAK LORTZERA

Tesiaren egilea: Joxpi Irastortza Madariaga

Unibertsitatea: Mondragon Unibertsitatea

Saila: Kultura eta euskara normalizazioa

Tesi-zuzendaria: Nekane Arratibel Insausti eta Iñaki Garcia Fernandez

Tesiaren laburpena:

Edozein jarrera-objekturen aurrean, jarreraren eta portaeraren arteko disonantzia orekatze aldera, zenbait ekintza eraman behar izaten da aurrera. Eta aurrera egin ahal izateko, motibazioa bezalako egiturak bultzatu behar gaitu: motibaziorik ez badugu, ez ditugu jarrerak aldatuko edo mugituko, eta portaera ez da gauzatu. Tesi honetan pentsamenduaren edo kognizioaren garapenaren garrantzia aztertu da, eremu sozioekonomikoan, euskara-planen baitan parte hartzen duten langile euskaldunen euskararen erabilera areagotzeko edo euskara erabiltzeko jarrera onetik portaerara jauzi egiteko, gizarte-psikologiako ikuspegi kognitibistari jarraiki. Horretarako, pertsuasio-mezen elaborazio altua edo bide zentrala eta elaborazio baxua edo zeharkako bidea erabili duten subjektuak konparatu dira.

Ikerketak hiru proba izan ditu. Lehenengoan, bi talde konparatu dira: euskara gehiago erabiltzeko konpromiso batzuekiko intentzioa agertu dutenak eta, konpromisoekiko intentzioa agertzeaz gain, pertsuasio-mezen bidezko jarraipena izan dutenak. Bigarrenean, euskara erabiltzeko eskainitako konpromisoen zerrenda batetik, norberak aukeratutako konpromisoen betetze maila aztertu da, bi talde konparatuz: konpromisoak hartu eta pertsuasio-mezen bidez jarraipena izan dutenak, eta, konpromisoak hartzeaz gain, euskararen gainean gogoeta-saioak izan dituztenak. Eta, hirugarren proban, hiru tratamendu alderatu dira: kontrol-taldea, pertsuasio-mezen bidezko jarraipena izan dutenak eta gogoeta-saioak izan dituztenak.

Probak egin ondoren, ondorioztatu da jarreratik portaerara jauzi egiteko ez dela nahikoa euskararen aldeko intentzio ona izatea, ezta konpromiso sendoa azaltzea ere; euskararen erabilera areagotzeko euskarari buruz gehiago jakiten saiatuz, euskararen gainean gogoeta eginez, helburuak lortu edo lortu ez izanaren arrazoiak edo kausak aztertuz, euskararen aldeko portaera alda daiteke.

Labur esanda, hauexek dira ondorio azpimarragarrienak:

1. Zenbait jarrera-objekturen aurrean jarreratik portaerara jauzi egitea ez da batere erraza, baina, posible izan, bada.
2. Intentzio sendoa izatea ezinbestekoa da pausoa emateko, baina ez da nahikoa.

3. Elaborazio baxuko pertsuasio-mezuen bidez intentzioa kontrolatzean (jarraipen-taldeak) emaitzak hobetu egiten dira, baina ez da iraunkorra denboran.
4. Portaera-aldaketa erabaki-hartze esplizitu, konprometitu, kontziente eta informatuarekin dago lotua, eta lortutako emaitzen gainean egiten diren kausa-egozpenen menpe dago.
5. Pertsuasioaren zeharkako bidea (jarraipen-taldeak) erabili duten taldeek emaitza onak izan dituzte, baina pertsuasioaren bide zentrala izan dutenek hobeak eta iraunkorragoak (gogoeta-taldeak).